



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
LURRALDE
BIZIA



Limonium

Territori intel·ligent

inguru
INGENIERIA
AMBIENTAL

IV Dokumentua

PAISAIAREN ZEHAZTAPENAK

BILBO METROPOLITARRAREN

EREMU FUNTZIONALEKO PAISAIAREN

KATALOGOA ETA ZEHAZTAPENAK

BILBO METROPOLITARRAREN EREMU FUNTZIONALEKO PAISAIAREN KATALOGOA ETA ZEHAZTAPENAK

IV. Dokumentua. Paisaiaren Zehaztapenak

2019ko azaroa

HELBIDEA

Paula Anasagasti

LIMONIUM TALDEA KOORDINAZIOA

Eduardo Soler

IDAZTEKO TALDEA:

Limonium, S.L.

Kelly Quiroz	Paisaian espezializatutako geografoa
Eduardo Soler	Agronomia-ingeniaria
Caribay Márquez	Geografo eta kartografoa
Marta Puig	Ingurumenaren Zientzietan lizentziatua
Silvia Abellà	Baso-ingeniari teknikoa
Cristian Nogales	Praktiketako ikaslea
Ángel Morúa	Arkitektoa

INGURU Ingeniería y Gestión Ambiental, S.A

Aida López	Partaidetza-estrategiaren garapena eta kudeaketa
------------	--

AURKIBIDEA

1. ATARIKOA	3
2. ANTOLAMENDU-ARAUAK	3

ERANSKINAK

- I. ERANSKINA PAISAIA MOTEN MAPA**
- II. ERANSKINA. PAISAIA-UNITATEEN MAPA**
- III. ERANSKINA. INTERES BEREZIKO PAISAIA-EREMUEN MAPA**
- IV. ERANSKINA. PAISAIAREN KALITATE-HELBURUEN MAPA**

1 ATARIKOA

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuak ezartzen ditu paisaia integratzeko eta garatzeko tresnak, lurralde-antolamenduaren berariazko dimentsio moduan, Europako Kontseiluak 2000. urtean onartutako Paisaiari buruzko Hitzarmen Europarrarekin bat.

Dekretu horrek arautzen ditu, besteak beste, Paisaiaren Katalogoak: dokumentu deskribatzaile eta prospektiboak dira, osorik hartzen dute eremu funtzional bakoitza, eta haietatik datoz Paisaiaren Kalitate Helburuak, Paisaia Unitateak eta Interes Bereziko Eremuak, bai eta Paisaiaren Zehaztapenak ere. Hain zuzen ere, Paisaiaren Zehaztapenak gomendiozko xedapenak dira, Paisaiaren Kalitate Helburuak lortzea bilatzen dute, eta Lurralde Plan Partzialean (LPP) sartzeko bokazioa dute.

Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionala, Bizkaiaren ipar-mendebaldean kokatua, Euskadiko hiri-kontzentrazio nagusia da, guztira 504 km²-ko azalera du, 900.000 biztanle baino gehiago, eta dentsitatea 1.800 biztanlekoa da km² bakoitzeko. Ibaizabal eta Nerbioi ibaiak Eremu Funtzionala zeharkatuz sortzen dute Bilboko itsasadarreko multzo urbano-industrial, funtsezko elementu fisiografiko eta sozioekonomikoak: bertan garatu izan da burdinaren meatzaritza, industria astuna eta portuetakoa, eta bertan zabalduz joan diren herrietatik sortu da portu, bizitegi eta industriad osatutako paisaia berezi bat. Ibai horietan gora joanda sortu dira korridore urbano-industrialak ere, burdinbide eta errepide ugaridunak. Bilboko itsasadarraren iparrean bada beste korridore garrantzitsu bat, Txorierriko: bertan daude eskualdeko azpiegitura eta ekipamendu nagusietako batzuk, adibidez aireportua. Eskualdearen perimetroan hainbat mendi daude, haietako batzuk itsas mailatik 1000 metro gora, landazabal atlantiko eta basoekin, pinu- eta eukalipto-plantazioak nagusi direlarik. Paisaia-balio handiko itsaslabarrak eta hondartzak daude kostaldean, bai eta bi ibaiadar txiki ere (Plentziakoa, Butroe ibaia, eta Barbadungoa), beren badia ederrekin.

Paisaiaren Katalogoak lau Paisaia Mota mugatzen ditu Eremu Funtzionalean:

Abraren inguruko kostak, itsasadarrak, padurak eta itsasertzeko mendiak. Bertan sartzen dira Bilbo Metropolitarraren kostaldeko paisaia eta natura, balio handikoak. Itsaslabarrak, padurak, hondartzak eta ibaiadar txikiak (Butroe eta Barbadun) Kantauri itsasoaren ertzean, eta harreman estuak daude kostaldeko mendiekin (adibidez, Serantes) edo Uribe Kostako landazabalekin. Itsaslabarretako maldak % 50etik gorakoak diren arren, posible egin dute belardiak egotea, hirigune etenekin eta baso atlantiko mistoko basoekin tartekaturik. Geologia Intereseko Eremu dira itsasertz horretako zenbait gune.

Bizkaiko mendi eta haranetako nekazaritza- eta baso-paisaia Eremu Funtzionaleko azalera osoaren ia erdia hartzen du eta bertako goraguneei dagokie. Gailur horiek lerroak osatzen dituzte, ipar-ekialdetik hego-ekialderantz, itsas maila baino 500-1000 metro gorago, hala nola Pagasari-Ganekogorta, Unbe-Gaztelumendi, Artxanda-Ganguren, Upo, eta Zeberio mendiak. Batez ere limonita, hareharri eta lutitaz osatutako mendikate horien barruan dago Bilbo hiria, hegoaldean Nerbioi ibaiak banatzen ditu, eta iparrekialdean Asua harana (Txorierr) inguratzen dute. Bertan daude Errekato eta Cadagua haranak. Oro har, paisai mota honetan daude plantazio-baso (pinu eta eukalipto) eta hostozabal-basoen azalerarik handiena, eta tarteka zuhaixkak, belarra, larre eta landazabal atlantikoaren arrastoak. Konurbazio baten inguruko erabilera periurbanoak ere badaude, adibidez hondakinak kudeatzeko azpiegiturak, garraio elektrikoko lineak, telekomunikazio-antena, tunelak, komunikazio-azpiegiturekin lotutakoak, baina ondare historiko eta etnologiko interesgarri bati eusten diote, eta funtsezko guneak dira Eremu Funtzionaleko biztanleen aisiarako eta bertako jarduera enblematiko bat egiteko: mendi-ibiliak eta txangoak. Zenbait hirigunek ongi eutsi diote beren fisionomiari.

Bilboko itsasadarraren ezkerreko meatzaritza-paisaia. Mendebaldean luzatzen da, Barbadunen erriberako Petronorren findegitik hareharri silizeozko eta limonita kalkareo edo silizeozko mendietara (adibidez, Mello mendia

eta Picomayor), Bilboko antiklinalaren ildoan, meatzaritza-historia handiko eremua, hainbeste ustiatu zena XIX. mendean eta XX.aren lehen erdian. Paisaia nabarmena da, eta aire zabaleko meatzeak eta haien ondarea ezkerreko biztanleen kulturaren eta nortasunaren parte dira. Hiri-egitura ere berezia da, meatzaritza-herriak bizitegi eta industriagune baitira egun.

Nerbioi, Ibaizabal, Bilboko itsadar eta Txorierriko haranak eta hiri- eta industria-korridoreak. Eremu funtzionalak duen azaleraren laurdena hartzen du eta bertan daude lurraldea eratu duten ibai-korridore nagusiak, hala nola Nerbioi, Bilboko itsadarrak bere bi aldeekin, bai eta Txorierriko ordokiak ere. Batez beste 200 metroko altuerak eta % 20tik beherako maldak hiri- eta industria-okupazio handia ekarri dute, bai eta portu-jarduerak eta garraio-azpiegiturak ere. Haran meharrek direnez, bizitegiak mendi-magaletan daude sarri, eta komunikazio-bideak goitik doaz, oso bistan. Historian zehar banaturik egon da ibaiadarrak: ezkerrean industria astunak eta bizitegi-gune jendetsuak, eta eskuinaldean erosteko ahalmen handiagoko bizitegiak. Ibaiadarreko hiriguneak eta paisaiak berroneratzeko prozesu sakon bat eman da azkenaldian –diseinuzko arkitekturaren bidetik–, horrekin batera gertatu da desindustrializazioa –industria-paisaia ugari abandonatuta eta zaharkituta utziz–, eta Abraren kanpoalderantz aldatu dira portu-azpiegiturak. Mota honetako Txorierriko korridorea ere, zabala eta erliebe gozokoa, eta bertan daude neurri handiko zenbait ekipamendu eta erabilera, adibidez aireportua, unibertsitateak, teknologia-zentroak eta kirol-ekipamendu handiak, lehen aipatutako korridoreetan sartzen ez zirenak; hemen ere poligono industrialak eta tertziarioak eta hiriguneak zabaldu diren arren, badaude landazabal atlantikoaren eta txakolin-mahastien txokoak ere.

Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionaleko LPP berrikusierekin batera eta harekin koordinaturik idazten da bertako Paisaiaren Katalogoa. Eremu funtzional honetan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko zehaztapenak erantzen zaizkio LPPri, gomendiozko Antolamendu Arau moduan. LPPn sartzen dira, halaber, Paisaia Unitateen mapak, Interes Bereziko Eremuak eta Paisaiaren Kalitate Helburuak, Katalogoan luze eta zabal azaltzen direnak.

2 ANTOLAMENDU-ARAUAK

1. artikulua. - Paisaia Zehaztapenen Helburua

- 1.- Paisaiaren Zehaztapen hauek gomendiozko xedapen arauemaileak dira, eta beren helburua da Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Kalitate Helburuak garatzea.
- 2.- Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Katalogoan oinarritzen dira Paisaiaren Zehaztapenak.

2. artikulua.– Paisaia Motak eta Paisaia Unitateak

- 1.- Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalean lau Paisaia Mota daude, eta haien barruan 25 Unitate, paisaiaren aldetik homogeenak, babes-, kudeaketa- eta antolaketa-erregimen bat behar dutenak.

2. Honako hauek dira Paisaia Motak eta haietako bakoitzaren barruko Unitateak:

a) Abraren inguruko kostak, itsasadarrak, padurak eta itsasertzeko mendiak.

- 01.PU. Kantauri Itsasoa
- 06.PU. Serantes
- 07.PU. Barbadun
- 22.PU. Uribe Kostako landazabalak
- 23.PU. Uribe Kostako itsaslabarrak
- 24.PU. Butroe
- 25.PU. Lemoiz

b) Bizkaiko mendi eta haranetako nekazaritza- eta baso-paisaia.

- 09.PU. Errekatxo
- 10.PU. Kadagua
- 11.PU. Pagasarri-Ganekogorta
- 13.PU. Zeberio
- 14.PU. Upo-Zaratamo
- 18.PU. Artxanda-Ganguren
- 21.PU. Unbe-Gaztelumendiko mendikatea

c) Bilboko itsasadarren ezkeraldeko meatzaritza-paisaia

- 08.PU. Meatzaldea

d) Txorierriko, Bilboko itsasadarreko, Ibaizabaleko eta Nerbioiko haranak eta hiri- eta industria-korridoreak.

- 02.PU. Abra
- 03.PU. Itsasadarra
- 04.PU. Eskuinaldea
- 05.PU. Eskerraldea
- 12.PU. Nerbioi
- 15.PU. Ibaizabal
- 16.PU. Bilboko auzoak
- 17.PU. Bilboko Hirigunea
- 19.PU. Txorierrri-Leioa
- 20.PU. Getxo

4. Paisaia Moten eta Unitateen mugaketa ageri dira Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Katalogoko 1. eta 2. mapetan. Paisaiaren Katalogoko II. Dokumentuan zehatz deskribatzen dira Paisaia Unitateak.

3. artikulua.– Interes Bereziko Paisaia Eremuak.

1. 12 Interes Bereziko Paisaia Eremu (IBPE) daude Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionalean.
2. Babesturik ez dauden IBPEentzat Ekintza Planak egitea gomendatzen da, paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko. Ekintza Plan horiek kontuan hartuko dituzte IBPE bakoitzarentzat ezarritako oharrak Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Katalogoan.
3. Honako hauek dira Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionalean dauden Interes Bereziko Paisaia Eremuak:
 - 01.IBPE. Serantes mendia eta Montañoko mendi-hegalak
 - 02.IBPE. Kadagua ibaiaren haraneko gunerik beherena
 - 03.IBPE. Artxandako mendi-hegalak
 - 04.IBPE. Txorierriko nekazaritza-guneak
 - 05.IBPE. Hiri inguruko hezeguneak
 - 06.IBPE. Basordako kala
 - 07.IBPE. Sopela-Barrikako landak

- 08.IBPE. Zorrotzaurre
- 09.IBPE. Aparkaleku handiak
- 10.IBPE. Malaesperako meatzea
- 11.IBPE. Itsasadarren eskuinaldea
- 12.IBPE. Berroneratzeko industria-eremuak

4. Interes Bereziko Paisaia Eremuen mugaketa ageri da Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Katalogoko 3. mapan, eta deskribatzen dira Paisaiaren Katalogoko II. Dokumentuan.

4. artikulua.– Paisaiaren Kalitate Helburuak (PKH).

1.- Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko PKHak lehenbiziko sailkapen maila batean biltzen dira, errazago sartu ahal izan daitezen kudeaketa-tresnetan, kontuan hartuz lurraldeen antolaketa eta erabilera, eta ekonomia- eta gizarte-jardueren kokatze-prozesu nagusiak. Bigarren maila batean, PKHak zerrendatu eta garatu egiten dira. Jarraian, PKHak talde hauetan multzokatzen dira:

Paisaiaren Kalitate Helburuak Bilbo metropolitarrako eskualde-egitura osorako (G)

G.1. Ibilbide-, behatoki- eta ekipamendu-sare baten bidez biztanleei eta bisitariei **paisaia ezagutzeko** eta goatzeko aukera erraztea.

G.2. **Paisaiaz eta haren diziplina anitzeko izaeraz prestakuntza eta sentsibilizazio-jarduerak eskaintzea** maila guztietan, enfasi berezia jarrita lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan, lanbide-heziketan eta unibertsitatean.

G.3. Lankidetzeta eta erantzunkidetasuna sustatzea **toki-administrazioen eta metropoliko administrazioen artean**, bai eta eragile pribatuen eta gizarte zibilaren artean ere, Paisaiaren Kalitate Helburuak eta haiekin lotutako neurriak garatzeko.

G.4. **Balio ekonomikoaz** gain, bestelako balioa ematea paisaiari; esaterako, hornikuntzarako eta erregulaziorako **zerbitzu ekosistemikoa**, tokiko garapenaren eragilea eta kidego-sentipena eta gizarte-osasuna sustatzeko zerbitzu kulturala.

G.5. Ekosistemen eta paisaia-elementuen **erresilientzia** areagotzea, **klima-aldaketari** eta hari lotutako arrisku naturalei aurre egiteko.

Paisaiaren Kalitate Helburuak lehen sektoreko nekazaritza eta basozaintza produktiboan (P)

P.1. **Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenen, landazabal atlantikoaren eta bertako larreen** nahiz harekin lotutako hainbat elementu tradizionalen bideragarritasun **ekonomikoa ahalbidetzea** eta eustea.

P.2. Gune banaletan, abandonatuetan edo basoko **monolaborantzetan nekazaritza-baratzeak, laborantzak eta landazabal atlantiko zaharrak lehengoratzeko**, eta horien erabilera eta gozamina ahalbidetzea.

P.3. **Paisaia** funtsezko bektore gisa txertatzea **baso-plangintzan** (bai estrategikoan, bai tokiko plan eta proiektuetan).

P.4. **Basoen** biodibertsitaterako, paisaia-dibertsitaterako eta naturaltasunerako **trantsizioa** sustatzea.

Paisaiaren Kalitate Helburuak industriaguneetan (I)

I.1. **Industriagune zahar eta berrietako paisaia hobetzea**, arreta berezia ipiniz bidegintzan, aparkalekuetan, eta nekazaritza- eta baso-eremuen, ibaien eta bizitokiaren ondoko guneetan.

I.2. **Abandonatutako eta zaharkitutako industriagune**, orube eta lurzoruen berrerabilera diseinatzea paisaiaren ikuspuntutik, lurzoru gehiago okupa ez dadin.

I.3. **Industria-paisaiaren eta -ondarearen elementuak eta multzoak babestu**, mantendu eta balioa ematea.

Paisaiaren Kalitate Helburuak hiri- eta bizitegi-guneetan eta haiei lotutako jarduera-guneetan (R)

R.1. **Hirigune historikoetako** paisaiaren, hirigintzaren eta kulturaren integritatea mantentzea eta hobetzea.

R.2. Mugikortasun, ekipamendu eta espazio publikoetan gabeziak dituzten **dentsitate handiko auzoetako** paisaiaren kalitatea eta funtzionaltasuna hobetzea.

R.3. **Landagune txikiak** paisaiaren integritate bisuala eta funtzionala mantentzea eta hobetzea, haien nortasuna eta ingurunea zaintzea eta balioa ematea.

R.4. **Espazio libreen sareak** lotzea eta hedatzea; eta bizitegi eta haien inguruko ibai, itsasadar, eta nekazaritza- eta basogintza-guneen artean dauden eremuak lehengoratzeko eta hobetzea.

R.5. **Hiriguneetako sarbideetako** paisaiaren kalitatea eta pertzepzio bisuala hobetzea.

R.6. **Bizitegi berrien garapenean eredu trinkoak diseinatzea**, paisaia kontuan hartzen duten eraikuntza-tipologiekin, ongi dimentsionaturik, eta finkatu gabeko, andeatutako edo erabiltzen ez diren lurzoru interstizialak aprobetxatuz.

R.7. **Merkataritza-ekipamendu eta -gune berriak** (bai eta haien inguruak eta sarbideak ere) paisaian integrazteko irizpideak kontuan izanda diseinatzea, eta daudenak hobetzea.

Paisaiaren Kalitate Helburuak mugikortasun- eta hornikuntza-azpiegituretan (M)

M.1. Lehendik dauden nahiz egongo diren **komunikazio- nahiz garraio-azpiegituren** eta haien ingurunearen arteko artikulazioa paisaiaren ikuspuntutik proiektatzea eta planifikatzea.

M.2. **Telekomunikazioko, transformazioko eta garraio elektriko azpiegituren** antolaketa arrazionalizatzea, guneak eta atzeko planoak libratzeko.

M.3. **Mugikortasun jasangarriaren sarea** hedatzea eta hobetzea paisaiaren ikuspegitik, eta paisaia egokitzea erabiltzeko eta gozatzeko.

Paisaiaren Kalitate Helburuak hondakinak tratatzeko azpiegituretan (T)

T.1. **Hondakinak kudeatzeko azpiegituren** paisaian hobeto integraztea, eta azpiegitura berriak ingurumen-sentsibilitate baxuko gune egokietan proiektatzea

Paisaiaren Kalitate Helburuak erauzketa-jardueretan (E).

E.1. **Erauzketa-jarduerak** paisaiaren ikuspegitik berriztatzea eta/edo erabilera berrietarako berrerabiltzea.

Paisaiaren Kalitate Helburuak kultura-ondarean (C)

C.1. **Eraikitako kultura-ondarea eta haren inguruneak** paisaia mantentzea, lehengoratzeko eta balioa ematea.

C.2. **Meatzaritza-paisaiaren** espezifikotasuna sustatzea, eta dauden guneak eta elementuak mantentzea eta lehengoratzeko.

C.3. Paisaiaren aprobetxamendu historikoarekin lotutako **kultura-ondare immateriala (usadioak eta esamoldeak)** sustatzea eta berreskuratzea, eta paisaia-balio handiko esparruetan egiten diren kultura-, erlijio-, kirol- eta festa-ekitaldiak ordenatzea.

Paisaiaren Kalitate Helburuak paisaia fisiografiko eta naturaletan (N)

N.1. **Substratu eta prozesu geologikoei** balioa ematea paisaiaren elementu erabakigarri gisa, bereziki Geologia Intereseko Eremuetan (GIE).

N.2. **Itsaslabar, hondartza eta badietako** paisaiaren kalitatea mantentzea eta hobetzea; toki andeatuak lehengoratzeko, eta haien erabilera publiko habitata zaurgarriekin bateragarria eta errespetuzkoa izan dadin sustatzea.

N.3. **Ibai, itsasadar eta hezeguneetako** paisaiak lehengoratzeko eta hobetzea –elementu fisikoak zein biologikoak–, eta erabilera publiko bateragarria sustatzea.

N.4. **Mendiko larreak, zuhaixka-sailak, zuhaitziak, heskaiak, baso autoktonoak eta zuhaitz bereziak** mantentzea eta hobetzea, biodibertsitate handiko paisaia kulturalen erakusgarri diren aldetik.

N.5. **Mendiak atzeko plano gisa** babestu, mantendu eta hobetzea, nortasunaren erreferente bisualak diren aldetik.

2. Paisaiari buruzko Hitzarmen Europarrak proposatzen duen Paisaiaren Kalitate Helburuak era honetan sailka daitezke:

Babes-helburuak: P.1., P.3.

Antolamendu-helburuak: G.1., G.5., P.2., P.4., I.1., I.2., R.2., R.4., R.5., R.6., R.7., M.1. M.2. M.3., T.1., E.1. N.2., N.3. N.5.

Helburu mistoak (babesa eta antolamendua): R.1., I.3., R.3., C.1., C.2., C.3., N.1., N.4.

Balioa ematea eta ezagutaraztea: G.2., G.3. eta G.4.

3. Paisaiaren Kalitate Helburuak ageri dira Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Katalogoko 4. mapan, eta garatuta daude Paisaiaren Katalogoko III. Dokumentuan (haiek garatzeko neurri, ekintza eta irizpideak, neurrien parametro orokorrak eta jarraipena egiteko adierazleak). Zein Paisaia Unitateri eta IBPEri eragiten dien ere adierazten da.

4. Paisaiaren Kalitate Helburuetan inspiratuko dira hiri- eta lurralde-plangintzak.

5. artikulua. - Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko zehaztapenak.

1. Ibilbide-, behatoki- eta ekipamendu-sare baten bidez biztanleei eta bisitariei paisaia ezagutzeko eta gozatzeko aukera erraztea.

- Paisaia interpretatzeko ibilbide-sare bat sortzea eta hornitzea bide historiko, bidezidor, abelbide, burdinbide berde eta bidegorrietan barrena, hirigunetik landagunera iristea erraztuz, barrera diren azpiegiturak iragazkor bihurtuz, eta garraio publikoaren intermodalitatea eta konexioa sustatuz. Horrek esan nahi du ibilbide batzuetako lanak bukatzea eta konexio berriak planteatzea –adibidez, Uribe Kosta eta Txorierrri artekoak–, ibilbide horien karga-ahalmena kontuan hartuz.
- Ibilbideetan zehar behatoki-sare bat sortzea, ongi seinaleztatua, ikuspen oneko lekuetan –adibidez, kostaldeko talaia eta faroetan, Burdin Hesiaren goialdeetan eta igoera ezagunak eta bidezidor ongi finkatuak dituzten mendien tontorretan–, interpretatu eta ezagutu ahal izateko bai paisaia bai haren lehengo eta oraingo dinamika.

2. Paisaiaren eta haren diziplina anitzeko izaeraren inguruan prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak eskaintzea maila guztietan, enfasi berezia jarrita lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan, lanbide-heziketan eta unibertsitatean.

- Paisaiari buruzko prestakuntza- eta sentsibilizazio-plan partekatu bat sortzea hezkuntzaren mundurako (ikasleak, irakasleak, unibertsitate-ikasketak eta graduondokoak).
- Herritarrek parte hartzeko prozesuak sustatzea paisaia-politika eta -proiektuetan.
- Tresnak indartzea eta garatzea (erakusketak, sare sozialak, argazki-lehiaketak etab.) herritarrak paisaiaren arloan janzteko eta sentsibilizatzeko, batez ere paisaian eragin handia duten eragile sozialak eta ekonomikoak (adibidez, nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantzarekin lotuak), paisaia balio erantsi bat izan baitaiteke haien artean.

3. Lankidetzaren eta erantzunkidetasuna sustatzea toki-administrazioen eta metropoliko administrazioen artean, bai eta eragile pribatuen eta gizarte zibilarren artean ere, Paisaiaren Kalitate Helburuak eta horrekin lotutako neurriak garatzeko.

- Lankidetzaren sustatzea administrazioen artean –batik bat udalak eta haien koordinazio-organismoak Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin–, Paisaiaren Kalitate Helburuak lortzeko eta Ekintza Planak abiarazteko (udalaz gainerakoak barne), bai eta Paisaiaren Azterketak ere, udaleko hiri-ordenantza eta -arautegiak gaindituz eta udalaz gainerako antolaketa-tresnekin koordinaturik, hala dagokionean.
- Kantabriako gobernuarekiko koordinazio-tresnak ezartzea, helburuak eta neurriak garatu ahal izateko partekatutako paisaia-unitate, muga orografiko, behatoki edo ibilbideetan.
- Paisaiaren ondarea ikertu, mantendu eta hobetzeko jarduerak koordinatzea eta bultzatzea, zaintza- eta lankidetzaren akordioak eginez unibertsitate eta zentro zientifikoekin.

4. Balio ekonomikoaz gain, bestelako balioa ematea paisaiari; esaterako, hornikuntza eta erregulaziorako zerbitzu ekosistemikoa, tokiko garapenaren eragilea eta kidego-sentipena eta gizarte-osasuna sustatzeko zerbitzu kulturala.

- Kualitatiboki eta kuantitatiboki ebaluatzea Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko kultura-, hornikuntza- eta antolamendu-zerbitzuak, bai eta paisaiaren eta turismo-jardueraren arteko harremana ere.
- Gizartearen ongizaterako hainbat zerbitzu eskaintzen dituzten paisaia multifuntzionalak babestea eta balioa ematea, egindako ebaluazioan oinarriturik.

5. Ekosistemen eta paisaia-elementuen erresilientzia areagotzea, klima-aldaketari eta hari lotutako arrisku naturalei aurre egiteko

- Lurralde Antolamendurako Politikek eta Lurralde Plan Partzialak proposatutako korridoreak mantendu, zabaldu eta garatzeko plan berezi eta azterketen bidez Azpiegitura Berdea garatzea, erregulazio-zerbitzuentzat garrantzitsuenak diren eremu, mendi publiko eta landazabal atlantikoak kudeatzea, aintzat hartuz erresilientzia eta funtzio ekosistemiko ugariak.
- Klima-aldaketara egokitzeko proiektuak sortzea eta garatzea kostaldean (itsasoaren maila igoetzea, ekaitz handiagoak), administrazio eskudunekin batera, hondartzak eta dunak lehengoratzuz, egitura zurrunkin eraitziz edo naturalizatuz eta leku arriskutsuetara joateko modua mugatuz, beti kontuan hartuz paisaiaren bektorea.
- Eurite eta uholdeetara egokitzeko proiektuak sortzea eta garatzea, administrazio eskudunekin batera, naturan oinarritutako soluzioak erabiliz, uholdeetarako mendi-hegalak eta ordokiak, kontuan hartuz lur kutsatuak mugitzearen arriskuak.
- Bero-uharte eta lehorteetara egokitzeko ahalmena areagotzea, espazio irekiak eta berdeguneak egoki diseinatuz eta landare-espezie ohituak eta itzala ematen dutenak erabiliz.

6. artikulua. Nekazaritzako eta basozaintzako paisaia produktiboaren zehaztapenak.

1. Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenen, landazabal atlantikoaren eta bertako larreen nahiz harekin lotutako hainbat elementu tradizionalen bideragarritasun ekonomikoa ahalbidetzea eta eustea

- Udal-plangintzan bizkor eta ganoraz sartzea Lurralde Plan Partzialaren (LPP) eta Nekazaritza eta Basozaintza Planeko (NBP) zehaztapenak, hirien garapenetik babestu ahal izateko nekazaritzaren eta abeltzaintzaren ekoizpen-eremuak, eta hiriguneeen edo hiri-eta industria-eremu interstizialen alboan daudenak. Baita gehien ikusten diren nekazaritza-paisaia eta ikurrak ere, nortasuna, paisaia- eta ingurumen-balioa ematen dieten osagaien aniztasunari eutsiz, eta PEAS txostena eta Bizkaiko Landa Lurzoruaren Funtsa bezalako tresnak erabiliz.
- Hirigintza-arautegiaren ahalmena hobetzea (eta hura aplikatu behar dutenen gaitasun teknikoa), nekazaritzako eta abeltzaintzako eraikinak paisaian integratzeko, bai eta baserriak landaguneean ere, tresna berriak garatuz –adibidez, Paisaia Inpaktuaren eta Paisaia Integrazioaren Azterketa– lurzoru urbanizazioneko eraikuntza berrietan.
- Partzeletako paisaia mantentzea eta/edo lehengoratzeko, balioa ematea, eta hain intentsiboak izan gabe jasangarriagoak diren nekazaritza- eta abeltzaintza-teknikak sustatzea, nekazaritza-paisaia tradizionalei eusteko.
- Kontuan hartzea nekazaritza eta abeltzaintza zerbitzu ekosistemiko estrategikoa dela, janariz hornitzeko gai dena garraioan energia gutxi gastatuz eta zerbitzu ekosistemiko berriak sortuz, abididez paisaia mantentzea.

2. Gune banaletan, abandonatuetan edo basoko monolaborantzetan nekazaritza-baratzeak, laborantzak eta landazabal atlantiko zaharrak lehengoratzeko, eta horien erabilera eta gozamena ahalbidetzea.

- Balioa galdu duten espazio publikoak eta berdegune pribatuak lehengoratzeko dituzten proiektuak garatzea, bai eta herritar, erakunde sozial, nekazari gazte eta enpresetako langileen eskura jartzen dituztenak ere. Haietan hiri-baratzeak, gune komunitario ekoizleak eta ingurumen-sistema ekoizleak garatzea, paisaia tradizionalak lehengoratzeko eta gizartearen osasuna eta tokiko produktuak sustatzea, hainbat tresna erabiliz (adibidez, lurraldearen zaintza edo Bizkaiko Landa Lurzoruaren Funtsa, uztailaren 24ko 101/2018 Foru Dekretuaren bidez arautua).
- Lehendik dagoen nekazaritza-paisaia aintzat harraraztea berdegune publikoak diseinatzeko orduan, hiri-transformazioak eta lagapenak daudenean, mantendu eta balioa emateko, hala badagokio.

3. Baso-plangintzan (bai estrategikoan, bai tokiko plan eta proiektuetan) paisaia funtsezko bektore gisa txertatzea.

- a) Paisaia hobetzeko zehaztapenak sartzea mendi publikoen eta baso-finka pribatuen baso-plangintza egiteko dauden eta egongo diren tresnetan, ekoizpen-guneak eta paisaia eta biodibertsitatea mantentzeko guneak bereiziz, eta basogintza tradizionalaren elementu interesgarriak inbentariatuz eta babestuz. Paisaia Inpaktuaren eta Paisaia Integrazioaren Azterketa garatzea eta aplikatzea baso-plantazio berrietan.
 - b) Paisaiaren osagaiak sartzea (ikuspegia hobetzea eta ingurumen-kalitatea) baso-ustiapen jasangarria ziurtatzeko.
4. Baso-masen biodibertsitaterako, paisaia-dibertsitaterako eta naturaltasunerako trantsizioa sustatzea.
- a) Ekoizpenerako baso-plantazioak hobetzea ikuspegiaren eta ingurumenaren aldetik, kontuan hartuz paisaiaren gaineko eraginak (besteak beste basogintzak sortzen duen erosioa, batez ere ageriko eremuetan edo paisaia eta/edo ingurumeneko ikur esanguratsuetatik gertu).
 - b) Hostozabal autoktonoen basoak handitzea –batik bat haran barrenetan eta korridore ekologikoetan, baina baita baso-plantazioetan ere–, biodibertsitatea areagotzeko ekotonoak garatuz eta arboladi helduko erreserbak sortuz.

7. artikulua. Paisaiaren zehaztapenak industriaguneetan (I)

1. Lehendik dauden eta eraikiko diren industriaguneetako paisaiaren inguruneak hobetzea, batez ere bidegintzan, aparkalekuetan, eta nekazaritza- eta baso-eremu, ibai eta bizitokien ondoko guneetan.

- a) Paisaiaren hobekuntzat hartzea industria-jarduera bizitegiekin bateratzea, eta industriaguneetan eraikuntzak ugaritzea.
 - b) Industriaguneak berroneratzeko plan bereziak eta proiektuak idatzi eta gauzatu daitezten sustatzea, kontuan hartuz haien bizi-zikloaren luzapena, eta diseinuan integratuz naturan oinarritutako soluzio integralak, zerbitzu ekosistemikoak bultzatzen dituztenak, bai eta haiek berroneratzea eta paisaian integratzea ere.
2. Abandonatutako eta zaharkitutako industriagune, orube eta lurzoruen berrerrabilera diseinatzea, paisaiaren ikuspuntutik, lurzoru gehiago okupa ez dadin.
- a) Abandonatutako eta zaharkitutako industriaguneak identifikatu eta sailkatzea, ingurunea eta paisaian duten eragina aintzat hartuz. Proposamen zehatzak egitea haietako bakoitzari buruz, abandonatutako industriagune handiak ere gogoan hartuz, herritarrek parte hartzen duten plan berezi eta proiektuen bidez, paisaia eta ingurumena funtsezkoak direlarik. Betiere, ekoizpen-erabilerak lehenestea, ahaztu gabe desklassifikatu eta natura-eremu eta berdegune bihurtzeko.
 - b) Erabilera bateragarri sekundario nahiz tertziarioei buruzko lurralde- eta hirigintza-arauegia malgutzea (kultura- eta arte-kudeaketa barne) industriagune zaharretan, berrerrabilera eta birzikla daitezten, batik bat hiriguneetakoak, hasieran sustapen-ekintzak eginez.

3. Industria-paisaiaren eta industria-ondarearen elementuak eta multzoak babestu, mantendu eta balioa ematea.

- a) Ikuspuntu integral batetik garatzea industria-paisaia –eraikinak eta ondasun higiezinak ezezik paisaia- inguruneak ere bai–, ondarearen eta industria-memoriaren jatorria eta nortasuna koherentziaz irakurtzeko.
- b) Ekoizpen-enpresek eta –erabilerak –baita kultura-kudeaketak ere– beren jarduerak egin ahal izatea ondarearen parte diren industria-erakin zaharretan, batik bat hiri-inguruneetan.
- c) Babestu, mantendu eta balioa eman beharreko paisaia- eta industria-ondareko elementuak eta -multzoak zehaztuta daude I. Dokumentuan eta II. Dokumentuko I.3 helburuko fitxan, eta bertan daude denetariko industria-erakinak eta obra publikoak, Etxe Merkeetako paisaiak, burdinbide-paisaiaren aztarnak eta itsasadarreko portu-paisaia elementuak. Horietako zenbait Kultura Intereseko Ondasun dira. 12.2 artikuluan lantzen dira meatzaritza-paisaiaren elementuak.

8. artikulua. Paisaiaren zehaztapenak hiri- eta bizitegi-guneetan eta haien lotutako jarduera-esparruetan (R).

1. Hirigune historikoetako paisaia-, hirigintza- eta kultura-integritatea mantentzea eta hobetzea.

- a) Hirigune interesgarrietako paisaiaren profila zaintzea, edozein izanik ere haien babes-maila, ahal dela saihestuz barrera ikusgarriak edo paisaia ikur jakinen gaineko esku-hartze itzulezinak.
- b) Hiri birgaitzeko eta berritzeko prozesuei ekitea, hiri-ehunik andeatuenei balioa emateko eta eraikitako ondarea lehengoratzeko, hiri-paisaiari eta espazio publikoari buruzko arautegia betetz eta garatuz.
- c) Honako hauek dira, batez ere, mantendu eta hobeto beharreko hirigune historikoak: Getxo, Portugalete, Bilbo, Larrabetzu eta Plentziako eremu berezia, Getxo eta Bilboko zabalgunek elkartuak, eta Trapagarango hirigune historikoko Birgaitze Integratuko Eremua.

2. Mugikortasun, ekipamendu eta espazio publikoetan gabeziak dituzten dentsitate handiko auzoetan paisaiaren kalitatea eta funtzionaltasuna hobetzea.

- a) Hirietako lurzorua hobetzeko estrategiak sustatzea eta batez ere paisaia berroneratzea, kontuan hartuz argiztapen publikoa, erabili gabeko orubeak, eraikinen kanpoaldeko eraikuntza-elementuak hobetzea, kanpoko aparkalekuak integratzea eta irisgarritasuna sustatzea.
- b) Hiriguneetako kalitate txarreko ibai- eta itsas aurreak birgaitzea eta balioa ematea.
- c) Paisaiaren integrazioa, ingurumen-hobekuntza eta kalitate estetiko irizpideak erabiliz tratatzea hiriko espazio publikoa, bertako landaretza, kudeaketa eta seinaleztapena. Elementu naturalak erabiltzea gomendatzen da, hirietako arboladia hobetzea eta espazio publiko berriak garatzea erabilerarik gabeko eremuetan.
- d) Hirigune hauetan aplikatu behar dira zehaztapen horiek:
 - Erandioko itsasadar aurreko bizitegiak
 - Bilboko Otxarkoaga, Errekalde-Uretamendi, Santutxu, San Adrian, Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetan.
 - Portugalete, Sestao, Santurtzi eta Basauriko dentsitate handiko eta blokeetako eremuetan. Barakaldoko Arrontegi auzoan
 - Auzo hauetako birgaitze integraleko eremuetan: Barakaldoko San Luis, Bilboko Bilbo Zaharra, Irala Artatzu-Bekoa, Zorrotxurre eta Gurutze, Etxebarriko San Antonio, Leioako Lamiako-Txopoeta, eta Sestaoko Txabarri-El Sol.

3. Landagune txikiak paisaiaren integritate bisuala eta funtzionala mantentzea eta hobetzea, eta haien nortasun-ezaugarriak eta inguruneak zaintzea eta balioa ematea.

- a) Landaguneetako bizigarritasuna eta bizi-kalitatea hobetzea, zerbitzuak herritarren eskura jarritz.
- b) Oraindik odenantzarik ez duten landaguneetan eraikuntza-baldintzak definitzea (bolumetria, morfologia, tipologia eta dentsitatea) eta kalitate estetiko hobetzea hainbat arlotan: kanpoko argiztapena, elektrizitate-, hornikuntza- eta saneamendu-zerbitzuak paisaian integratzea, espazio publikoaren tratamendua, berdeguneak, seinaleztapena eta dentsitate txiki eraikin berriak integratzea.
- c) Nukleo horiek bete daitezten sustatzea, lehendik dauden eraikinak berrerrabiliz edo birgaituz erabilera berriak instalatuz, nekazaritzako eta basogintzako erabilerekin eta instalazioekin bateratuz, eta urbanizatu gabeko interstizioak betetz, baina etxebizitzetako lotutako baratzak mantenduz.
- d) Zehaztapen horiek aplikatuko litzazkieke Bizkaiko Foru Aldundiak 2016ko otsailaren 9ko Foru Akordioan inbentariatutako landaguneei, eta Paisaiaren Katalogoko III. Dokumentuko R.3 helburuko fitxan ageri diren antzekoei.

4. Eremu libreen sareak lotzea eta hedatzea; eta bizitegi-guneen eta haien inguruko ibai-gune, itsasadar-gune, eta nekazaritza- eta basogintza-guneen artean dauden eremuak lehengoratzea eta hobetzea.

- a) Azpiegitura Berdea babestu, mantendu eta hedatzea hirigune edo industriaguneetan (berdeguneak, elementu hidrologikoak, espazio libreak, mugikortasun jasangarriko sarea), eta ukitzen dituztenean ibai-, itsasadar-, baso- eta nekazaritza-guneak, bai eta gune andeatuak ere, hala nola baratze prekarioak. Lurralde- eta hirigintza-arautegiak sakontzea, bai eta udalei derrigor eta doan lagatako lurzoruak erabiltzea ere, lehendik dauden landare-elementu interesgarriei eutsiz. Adibidez, Bilboko Eratzun Berdearen jarraipena diseinatzea udal mugetatik kanpora, ekialderantz Ibaizabalen alde bietan eta Serantes-Luzuero ere sartuz, Bilbo Metropolitarrako Gerriko Berdean ezarritakoaren bidetik, edo itsasadarrarekin paraleloan doan ibai-parke bat diseinatzea Boluetan.
- b) Gizarte zibilaren ekimen espontaneoek bidea ematea, baliabide gutxi eduki arren askotan proiektu interesgarriak abiarazten baitituzte espazio banal horietan. Arte- eta kultura-adierazpenak, truke-azokak, baratze sozialak eta abar bultzatzea, jabetza publikoaren edo pribatuaren eskubideak kaltetu gabe eta paisaia-irizpideak erabiliz.
- c) Espazio libreak eta berdeguneak diseinatzeko eta kudeatzeko irizpideak eta neurriak ezartzea –naturan eta paisaian oinarritutako soluzioekin–, kontuan hartuz baliabide asko xahutzen duen landaretza exotikoa ordeztzea, plazak eta espazio gogorak landareztatzea, polinizatzaileak eta fauna erabilgarria sustatzea, elikagaiak ekoiztea, landareen biodibertsitatea, zuhaixka-heskaiak lehengoratzea, euri-ura infiltratu eta ureztatzea erabiltzea eta ohitura agresiboak minimizatzea (adibidez, gehiegizko kimaketa edo fitosanitarioen erabilera).

5. Hiriguneetako sarbideetako paisaiaren kalitatea eta pertzepzio bisuala hobetzea

- a) Ahal dela, hiriguneetako sarbideak, komunikazio-azpiegituren arteko espazio interstizialak eta biribilguneak lotzea espazio libreen eta ibilbideen sarearekin (pasealekuak, bidegorriak), hiri-paisaiaren jarraipen espaziala eta soziala zainduz eta landagunearekin integratuz. Ildo horretan, aintzat hartzea elementu sinbolikoak, historikoak, arkitektonikoak edo naturalistikoak (lehendik daudenak edo berriak) balio erantsia ematen diotenak hiriko eta aldiriko paisaiari, tokiko nortasuna indartuz eta guneetako sarbideak singularizatuz.
- b) Hiriguneetara heltzen diren sarbideak eta errepide-azpiegiturak paisaian integratzeko neurriak garatzea: zuhaitz hostoerorkor egokien lerroak, elementu gogorrentzako pantailak, lorategi bertikalak, landare-pantailak, errepide- eta publizitate-seinaleak kudeatzea eta integratzea, eta argiztapen-elementuak ongi diseinatzea.
- c) Trenetik ikusten diren paisaia-kalitate gutxiko hiri-atzealdeak hobetzea.

6. Bizitegi berrien garapenean eredu trinkoak diseinatzea, paisaia kontuan hartzen duten eraikuntza-tipologiekin eta ongi dimentsionatuak; eta finkatu gabe dauden, andeatuta dauden edo erabiltzen ez diren lurzoru interstizialak aprobetxatzea.

- a) Bizitegi-lurzoruaren zabalpena mugatzea plangintzan gaur egun definitutakoaz haratago, lurzoru urbanizaezina ez kontsumitzeko, hiri-bilbean mugatuta dauden sektoreak edo partzela interstizialak aprobetxatuz, eta amaitu gabe dauden dentsitate txikiko edo handiko sektoreak birdiseinatuz, lehendik dauden hiri-lurzoruei jarraituz, aukerako espazio libreak galdu gabe.
- b) Bizitegi-lurzoru, errepide, aparkaleku, berdegune eta ekipamenduen arteko oreka definitzea, beren artean espazio handiak dituzten altuera ertaineko blokeekin, naturaren bilbea hirian sartu ahal izateko (Azpiegitura Berdea), nortasuna ematen duten baliabideak lehenetsiz (adibidez, kokagunerik tradizionalen morfologia), espazio publikoko sarean zentratuz.

- c) Helburu hori betetzeko, lagungarriak dira lurpeko aparkalekuak eraikin handien aurrean, zoladura iragazleak, teilatu eta estalki lauak erabiltzea modu berrian eta ingurumenari begira, kanpoko argiztapen ongi diseinatua eta ez-kutsatzailea, eta eraikinen paisaia-diseinua.
- d) Landareberritzea eta paisaia lehengoratzea, bai eta biodibertsitate-galera eta beste ingurumen-bektore batzuen gaineko eragina konpentsatzea ere, hiri-paisaia berrien jasangarritasuna frogatzen duten ziurtagiriak erabiliz.

7. Merkataritza-ekipamendu eta -gune berriak (bai eta horien inguruak eta sarbideak ere) paisaian integratzeko irizpideak kontuan izanda diseinatzea, eta lehendik daudenak hobetzea.

- a) Proiektu berrietan lurzoruaren kontsumoa mugatzea, lehendik hiri- edo industria-guneetan sartzeko dagoen barruko edo erantsitako errepide-sarea aprobetxatuz, eta zaharkitutako industria-eraikinak berrerabiliz.
- b) Lehendik dauden edo berriak diren ekipamendu eta merkataritza-guneetarako ingurumen- eta paisaia-neurriak diseinatzea eta betetzea, kontuan hartuz mugikortasunaren kudeaketa kolektiboa, aparkalekuak eta sarbideak paisaian integratzea, argiztapen egokia, publizitatea paisaian integratzea, fatxaden eta kanpoaldean paisaia-diseinua, estalki multifuntzionalak, eta biodibertsitatea sustatzeko eta langileen eta erkidegoaren aisiarako pentsatutako espazio libre eta lorategiak.

9. artikulua.- Paisaiaren zehaztapenak mugikortasun- eta hornikuntza-azpiegiturretan (M)

1. Bai lehendik dauden bai eraikitzeke dauden komunikazio- eta garraio-azpiegituren eta horien ingurunearen arteko artikulazioa paisaiaren ikuspuntutik proiektatzea eta planifikatzea.

- a) Komunikazio-bide nagusiak paisaian integratzea Paisaia Integraziorako Azterketa baten bidez eta/edo Integrazio Plan Berezi baten bidez, kontuan hartuz irizpide estetikoak eta jasangarritasuna, batik bat autopistak eta haien loturak errepide nazional eta sekundarioekin (azpiegitura berdearekin gatazka dagoen puntuetan tunel faltsuak egiteko aukera barne), bai eta tunelak ere.
- b) Komunikazio-azpiegitura berrietan irisgarritasuna eta garraio kolektiboa lehenestea.
- c) Trenbidea lurperatzea, zeharkatzen dituen auzoen bizi-kalitatea hobetzeko bada.
- d) Lehendik dauden nahiz egin asmo diren komunikazio-azpiegiturretan paisaia- eta ingurumen-integraziorako neurriak betetzea: adibidez, ezpondetako bioingeniaritza, landare-pantailak espezie autoktonoekin, panel akustikoak eta zerbitzuguneak hobetzea, zubibideen zutoinak paisaian integratzea, landare inbaditzaileak erauzte, espazio interstizialekin mikrolorezaintza, euri-ura infiltratzea eta biribilguneak edertzea.

2. Telekomunikaziorako eta transformazio eta garraio elektrikorako azpiegituren antolaketa arrazionalizatzea, guneak eta atzeko planoak libratzeko.

- a) Tentsio altuko eta oso altuko lineentzako bide berririk ez egitea, ahal bada behintzat.
- b) Telekomunikazio-azpiegiturak (antenak, kontrol-eraikinak) eta azpiegitura elektrikoak (dorreak, lineak eta transformazio-estazioak) kokatzea lehendik dauden azpiegituren alboan, zutoinetan hainbat zerbitzu batuz edo hain agerian ez dauden lekuetan ipiniz, eta paisaian integratzeko neurriak betetzea.
- c) Balio natural bereziko espazio babestuei eta IBPEei eragiten dieten linea elektrikoak lurperatzea teknikoki eta ekonomikoki bideragarria den aztertzea, eta abandonatuta dauden edo erabiltzen ez diren azpiegiturak kentzea.
- d) Linea elektrikoaren azpiko segurtasun-kaleetako korridore eta ekotonoen potentzial ekologikoa aztertzea.

3. Mugikortasun jasangarriaren sarea hedatzea eta hobetzea paisaiaren ikuspegitik, eta paisaia erabiltzeko eta gozatzeko egokitzea.

- Bide historikoak, abelbideak, bidezidorrak eta burdinbide berdeak mantentzea eta sustatzea, paisaia uztartzen baitute, paisaian integratzeko neurriak eta altzari egokiak hautatuz bide nahiz aparkalekuetan, landaketak eta zuhaitz nahiz zuhaixka autoktonoen lerroak eginez, eta zoladura iragazleak erabiliz.
- Ibilbide, bide eta konexio-lan berriak baloratzea eta egitea, industriaguneetara heldu ahal izateko, egungo sareak jarraitzeko eta intermodalitatea egoteko garraio-sistema publiko eta jasangarriekin, bai eta itsasadarrean zehar jarraitzeko ere.
- Errepideko zirkulazioaren alternatiba egokiak daudenean, aztertzea ea errepide sekundarioak eta lokalak bihur daitezkeen mugikortasun jasangarriko azpiegitura, edo galtzadak eta aparkalekuak murriztuz pasealeku, bidegorri eta antzekoak ipini.

10. artikulua. - Paisaiaren zehaztapenak tratamendu-azpiegituretan (T)

1. Hondakinak kudeatzeko azpiegiturak paisaian hobeto integratzea, eta azpiegitura berriak ingurumen-sentsibilitate baxuko gune egokietan proiektatzea.

- Gaur egun dauden tratamendu-azpiegituren inpaktua eta paisaia-integrazioa aztertzea, beren funtzioarekin bateragarriak diren neurrien bidez: landare-pantailak, sarbideak paisaian integratzea, araztegien alboan dauden ibaiertzeko basoen ikusgarritasuna, hauskortasuna eta berroneratzea.
- Tratamendu-azpiegitura berriak ingurumen-sentsibilitate baxuko eremuetan kokatzen saiatzea, kontuan hartuz lehendik andeatuta dauden eremuak, paisaiaren ikuspegitik egokiak diren alternatibak, inpaktu akustikoa, hauts- eta usain-emisioak, ibaiertzeko baso eta baratzeen gaineko inpaktua, eta parte hartzeko prozesu zabalak eta ongi egituratuak.
- Zehaztapen horiek aplikatu beharrekoak dira hondakin-uren araztegietan, edateko uren araztegietan, kolektore-sareetan, denetariko zabortegietan, garbiguneetan eta hondakinak kudeatzeko konplexuetan, Paisaiaren Katalogoko III. Dokumentuko T1 helburuko fitxetan aipatuak, bai eta instalazio berrietan ere.

11. artikulua. - Paisaiaren zehaztapenak erauzketa-jardueretan (E)

1. Erauzketa-jardueren eremuak paisaiaren ikuspegitik berriztatzea eta/edo erabilera berrietarako berrerabiltzea.

- Harrobi, zabortegi eta betelanen bizitza-amaieran egin beharreko Zaharberitze Planak berrikustea, ea berrerabili edo erabilera berriak ezar daitezkeen bertan (aisia-jarduerak, ekipamenduak, zientzia- edo hezkuntza-lana, parkeak), kontuan hartuz ondare- eta interpretazio-balioa, balego.
- Zaharberitze Planetan ezarrita dagoen harrobi aktiboak paisaian integratzeko kontrol- eta jarraipen-neurriak hartzea: maila akustikoak, hauts- eta usain-emisioak, barrera berdeak ipintzea, aurrealde irekietako arrokak zahartzea, sarbideak paisaian integratzea landareztatuz, ezpondak egonkortzeko bioingeniaritza, jariatzeak aintzat hartzea, espezie aloktonoak kentzea, material inerteekin betelanak eginez hondakindegia berrerabiltzea.
- Erauzketa-jarduera berriak ikusgarritasun, hauskortasun eta balio baxuko eremuetan jartzen saiatzea, bai eta lehendik andeatuta dauden eremuetan ere, alternatibak aztertu eta paisaiaren aldagaia behar bezala aintzat hartu ondoren.
- Zehaztapen horiek dagozkie gaur egun indarrean dauden meatzaritza- eta erauzketa-kontzesioei (Paisaiaren Katalogoko III. Dokumentuko E1 helburuko fitxan datoz), bai eta proiektu berri posibleei ere.

12. artikulua. - Paisaiaren zehaztapenak kultura-ondareetan (C)

1. Erauzketa-jarduerak paisaiaren ikuspegitik berriztatzea eta/edo erabilera berrietarako berrerabiltzea.

- Eraikitako kultura-ondareko elementuen arro bisuala aintzat hartzea, ikusgarritasunaren eta interpretazio-ahalmenaren gaineko inpaktuak ekiditeko, paisaian hobeto integratzea eta ingurunea egokitzea, berrerabilera-planak eta erabilera berriak ere baliatuz.
- Mantentzea eta balioa ematea bide historikoei eta bide nagusiei, ibaiadarreko portu-, arrantza- eta nabigazio-erabilera zaharreko elementuei eta arrantza-gune txikiei, Burdin Hesiari eta Azpiegitura Berdean integratzeari.
- Udal-plangintzetan dauden katalogoak osatzea eta haien bidez hedatzea kultura-ondarearen balioa eta hura zaindu beharra.
- Zehaztapen hauek oro har aplikatu beharrekoak dira Bilbo Metropolitanaren Eremu Funtzionalean adierazitako 935 Kultura Ondasunetan eta, hain zuzen ere, Paisaiaren Katalogoko I. Dokumentuan aipatutako elementu zehatzetan.

2. Meatzetako paisaiaren espezifikotasuna sustatzea, eta dauden guneak eta elementuak mantentzea eta lehengoratzea.

- Meatzaritza-ondareko elementuen arro bisuala aintzat hartzea beren babes-erregimenean eta ondare-katalogoen berrikuspenean, inpakturik egon ez dadin beren ikusgarritasunean eta historia nahiz geologia interpretatzeko ahalmenean.
- Meatzaritza-paisaiaren irakurketa integratzea kontaketa zabal batean, testuinguruan ipiniz, transformazioa azalduz eta loturak ezarriz geologiarekin eta industria-jarduerarekin, Bilbo Metropolitanaren Eremu Funtzionaleko mugak gaindituz. Ibilbideak eta behatokiak paisaian hobeto integratzea, ingurunea egokitzea, identifikatzea, seinaleztatzea, eta berrerabilera globaleko eta erabilera publikoko planak egitea, besteak beste Gallartako Meatzaritza Museoa sustatuz.
- Meatzaritzako ebakien barnean sortutako elementu baliotsuak berreskuratzea, hala nola baltsak eta hezeguneak.
- Zehaztapen hauek aplikatu beharrekoak dira ebakietan eta meatze zaharretan, bai eta meatzaritza-azpiegituran ere, besteak beste meatzaritza-burdinbideetan Ortuella, Trapagaran, Zierbena, Abanto-Zierbena, Muskiz, Barakaldo, Sestao, Portugaleta, Arrigorriaga/Basauri eta Bilbon.

3. Paisaiaren aprobetxamendu historikoarekin lotutako kultura-ondare immateriala sustatzea eta berreskuratzea, eta paisaia-balio handiko esparruetan egiten diren ekitaldi masiboak ordenatzea.

- Kultura-ondare immaterialak txertatzea interpretazio-elementuen diseinuan edo haien hari eroale gisa, arreta berezia ipiniz euskarazko toponimian eta lurraldean duen esanahian.
- Emakumeek kultura-ondareari egindako ekarpenei balioa ematea.
- Aire zabaleko interpretazio-zentroak, museoak edo instalazioak garatzea, kultura-ondare immateriala mantentzeko eta ezagutarazteko.
- Arnasguneetan euskararen erabilera mantentzea eta sustatzea, eta euskara hiriguneetan erabiltzeko jarduerak bultzatzea, arnagune funtzionalen garapena sustatuz.
- Erromeriak, prozesioak, txangoetako igoerak eta antzeko ekitaldi masiboak inbentariatzea, haien inpaktua mugatzeko, erabilera publikoaren ordenatuz eta paisaia lehengoratuz, batez ere ekitaldirik jendetsuenetan.

13. artikulua. - Paisaiaren zehaztapenak paisaia fisiografiko eta naturaletan (N)

1. Geologia-ondareari balioa ematea, paisaia zehazten duen elementu gisa.

- Jabe diren pertsonekin eta administrazio publikoekin lankidetzak-hitzarmenak edo zaintza-akordioak egitea eta sustatzea, geodibertsitatea eta ekologia-ondarea babesteko direla bermatzeko.

- b) Geologia Intereseko Eremuak turismoari eta hezkuntzari begira interpretatu ahal izateko azpiegiturak eta ekipamenduak egokitzea, diseinatzeko orduan substratu geologikoa errespetatuz.
- c) Oraingo edo geroko bidezidor, behatoki eta ibilbideen sarea aprobetxatzea, hobeto ezagutu ahal izateko geologia-ondarea eta -historia eta geodibertsitatea, horiek interpretatzeko baliabideak emanez eta geologiaren aldetik interesgarrienak seinalatuz.
- d) Zehaztapen horiek aplikatu beharrekoak dira Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalan dauden Geologia Intereseko 19 Eremuetan (Paisaiaren Katalogoko III. Dokumentuko N.1 helburuaren fitxan ageri dira), bai eta interpretazio-aukerak ematen dituzten beste geologia-inguruneetan ere.
2. Itsaslabar, hondartza eta badietako paisaiaren kalitatea mantentzea eta hobetzea, eta erabilera publiko bateragarri bat sustatzea.
- a) Hondartzetako aparkalekuak, bideak eta sarbideak berroneratzeko eta paisaian integratzeko proiektuak egitea eta gauzatzea, erabilera publikoa eta ekitaldi masiboak bateragarri eginez landaretza eta flora babestua eta interesgarria mantentzearekin, eta interpretazio-sistema bateratu bat ezarritik.
- b) Hondartza eta itsaslabarretako dinamika naturalak berroneratzeko proiektuak diseinatzea eta gauzatzea, azpiegitura linealak atzeratuz, dunak lehengoratzuz eta espezie exotikoak kenduz, erresilientzia indartzeko eta klima-aldaketara egokitzeko.
- c) Itsaslabar eta haitzetako hormen paisaia nahasten duten pintada, eraikin eta elementu zaharkituak inbentariatzea eta kentzea.
- d) Itsas trafikoa behatzeko talaia zaharrak eta arrantza-ekitaldiak berreskuratzea eta seinaleztatzea.
- e) Zehaztapen horiek aplikatu beharrekoak dira Sopela, Barrika, Plentzia, Gorliz eta Lemoizko kostaldean Abraren ekialdean, eta Zierbena eta Muskizen Abraren mendebaldean.
3. Ibai, itsasadar eta hezeguneetako paisaia lehengoratzeko eta hobetzea, eta erabilera publikoarekin bateragarri izan daitezen sustatzea.
- a) Hirigintzaren bidez sustatzea espazio libreak eta lagatako lurra pila daitezen ibai eta itsasadarren paraleloan eta hezegune inguruetan, biodibertsitatea lehengoratzeko eta espazio horiek arduraz erabiltzeko, soluzio organikoak eta paisaian integratuak erabiliz.
- b) Ibaiertz, itsasadar eta hezeguneetako hidromeofologia, paisaia eta biodibertsitatea lehengoratu eta naturalizatzeko planak eta proiektuak diseinatu, gauzatu eta zabaltzea, batez ere Bilboko itsasadarrean.
- c) Estalitako ibai-ibilguak, uholde-ordokiak eta garai bateko hezeguneak berreskuratzea, posible denean.
- d) Zaharberritzea eta aintzat hartzea eraikuntza eta industria tradizionalak, ibaiekin lotutako paisaia-multzo kulturalak (errota, burdinola, zubi, presa, garbitoki etab.), itsasadarrekin lotutakoak (arrantza-ontzi, ontziraleku etab.), haien balio soziala eta historikoa azpimarratuz, bai eta zirga-bideak ere.
- e) Zehaztapen horiek aplikatuko zaizkie Ibai eta Erreka Ertzetako NBPan aipatutako ikusgarritasun handiko lekuei, hain zuzen ere berroneratu beharra duten eta komunikazio-azpiegiturak dituzten ibai hauen ertzetan: Gobela, Asua, Galindo, Nerbioi, Ibaizabal eta Cadagua. Baita LPPk proposatutako ibai-korridoreen eta -parkeen sarean ere: Barbadun, Zeberio eta Larrainazubi ibaien korridoreak. Baita Bilbo, Butroe eta Barbadungo itsasadarretan, Txipio eta Pobeñako paduretan, Lamiako eta Bolueko hezeguneetan, Astrabuduako ibarrean, eta Gorrondatxe eta Etxerreko urmaeletan ere.
4. Mendiko larre, zuhaixka-sail, zuhaitzi, heskai, baso autoktono eta zuhaitz bereziak mantentzea eta hobetzea.
- a) Eremu Funtzionalan dauden zuhaitz- eta zuhaixka-sail autoktonoak babestea gizakiak haien naturaltasuna edo paisaiaren kalitatea nahasi ez dezan, lehendik dauden erabilera jasagarriei eutsiz, baso-plantazio bihurtzea debekatuz, eta espezie exotiko inbaditzaileak kenduz.
- b) Hostozabal autoktonoen basoek duten azalera eta kalitatea handitzea, batik bat haran barrenetan eta espazio natural nagusiak elkartzen diren lekuetan, korridore ekologikoen potentzialitatea baitute.
- c) Espazio libreak eta pasealekuak diseinatzea lehendik dauden zuhaitz eta zuhaixka autoktonoen arabera, jatorri genetiko hurbila duten zuhaitz eta zuhaixka autoktonoak erabiliz.
- d) Lehendik dauden Zuhaitz Katalogoak osatzea, udalerraren eta Eremu Funtzionalaren mailan, interpretazio- eta hezkuntza-programak diseinatu eta eginez, eta interbentzio-proiektuak gauzatuz zuhaitzik aipagarrienen inguruan.
- e) Mendi-larreak mantentzea abeltzaintza tradizionala sustatuz, elementu desitxuratuak kokapena debekatuz, edo balioa emanez baso-korten partzela tradizionalak.
- f) Zehaztapen horiek lurralde osorako dira, baina batez ere aplikatuko zaizkie Paisaiaren Katalogoko III. Dokumentuko N.4 helburuko fitxan ageri diren basoei, LPPk proposatutako korridore ekologikoen sareari, eta mendi-larreak dituzten Pagasari-Ganekogortako gailurrei.
5. Mendiak babestu, mantendu eta hobetzea, nortasunaren erreferente bisualak diren aldetik.
- a) Lurralde eta hirigintza-babesa ematea eremu funtzionaleko paisaiaren atzeko plano eta ikur nagusiei, arreta berezia jarritik haranen mugetako gailurretan eta nortasunaren ikur diren mendietan.
- b) Inpaktua duten azpiegiturak murriztea, paisaiari asko eragiten diotenak, eta elementu fisiografiko nagusiak nahasten dituzten baso-plantazioak.
- c) Eraikinen edo azpiegituren ondorioz andeatutako atzeko planoak eta paisaiaren ikurrak lehengoratzeko, antolaketa- eta eraiketa-proiektuen bidez, edo baso-plantazioak ezabatuz.
- d) Zehaztapen horiek aplikatuko dira Argalar, Arnotegi, Artanda, Bizkargi, Ganekogorta, Ganguren, Ganeroitz/Apuko, Gongeda, Kamaraka, Malmasin, Mello, Montano, Munarrikolanda, Pagasari, Luzuero, Serantes eta Upo mendietan, bai eta haiek elkartzen dituzten gailurretan ere, batez ere Artxanda-Ganguren eta Unbe-Gaztelumendi gailurretan.

14. artikulua. - Paisaiaren Zehaztapenak aplikatzea eta garatzea.

Paisaiaren Zehaztapenak aplikatu eta garatzeko erabiliko dira lurralde- eta hiri-plangintzako tresnak, haien ingurumen-ebaluazioak eta ingurumen-eraginaren ebaluazioak. Baita Paisaiaren Ekintza Planak eta Azterketak ere.